

Nola sustatu BELDUR BARIK LEHIAKETA zure herrian

GIDA PRAKTIKOA

**BELDUR
BARIK
#JARRERA
2025**



Antolatzailea:



Bultzatzaileak:

araba álava
foru aldundia diputación foral



GIPUZKOA



Laguntzaileak:



Irailaren 22an Beldur Barik Lehiaketaren XVI. Edizioa jarriko dugu abian. Beldur Barik programa Berdinsarea (indarkeria matxistaren aurka lan egiten duten udalak) sarearen barruan sortu zen 2009an.

Gaur egun, Emakundek antolatzen du, Eudelen eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien bultzadarekin batera. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren, Gazteria Zuzendaritzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITB-ren laguntza dauka.

Indarkeria matxista prebenitzeko gazteei zuzendutako programa da. Bere helburua, gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea da, jendarte eraldaketan laguntzeko. Horixe baita Beldur Barik jarrera bultzatzea.



BELDUR BARIK JARRERA ETA LEHIAKETA

Kultura matxista eta indarkeria sexistaren adierazpenak eraldatzeko konpromiso pertsonal zein kolektiboa adierazten duen jarrera da Beldur Barik Jarrera; positiboa eta transgresorea. Alegia, neska eta mutilek euren egunerokotasunean ematen diren desparekotasun egoerei nola egiten dieten aurre erakusten dutenak. Jarrera horrek indartu egiten ditu nesken eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko eta herritar guztien inplikazioa lortzeko mezuak. Gainera, mutilen artean jarrera matxistei aurre egiteko neurrien lana bultzatzen du, eraso sexisten aurrean rol aktiboa izan dezaten animatuz.

Beldur Barik programaren baitan ikus-entzunezko lehiaketa antolatzen da. Lehiaketa horren helburua da, bideoen bidez, neska-mutilek desberdintasun egoerei nola aurre egiten dieten erakustea. Bideo horietan agertzen diren jarrerak eta portaerak baloratu eta sustatu nahi dira, betiere errespetuan, berdintasunean, askatasunean, norberaren erabakitze gaitasunean, elkarlanetan eta indarkeriaren kontrako jarreran oinarrituta badaude.

Xede den publikoa

Programa 12 eta 20 urte arteko neska-mutil gazteei zuzentzen zaie.

Lehiaketaren kontzeptua

Lehiaketaren bidez, ahalik eta gazte gehien inplikazioa lortu nahi da. Bideo formatuan aurkezten den edozein genero artistikok parte hartu dezake (marrazkiak, antzerkia, performanceak, kanta, etab.). Betiere Beldur Barik Jarrera erakusten.

Helburuak

- Lehiaketan parte hartzen duten pertsonen lana zabaltzeko eta ikusarazteko plataforma izatea.
- Gazteek indarkeria matxistari aurre egiteko eta indarkeria gainditzeko erabiltzen dituzten diskurtso eta jardunbideak balioesteko espazioa izatea.
- Parte-hartzaileentzako pizgarri izatea, eragile aktiboak izaten jarraitzeko.
- Ekitaldiek jendartearen izan dezaketen oihartzuna erabiltzea, gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko.

Aurten, gazteengana hurbildu eta haien parte hartzea sustatzeko asmoz, kategoria eta sarietan aldaketak egin ditugu.

KATEGORIAK

Ikus entzunezko lehiaketaren bidez, modu praktikoa indarkeria matxista identifikatzeko baliabideak eman nahi zaizkie gazteei. Egoera horiei buruz hausnartuz, egoerei aurre egiteko erantzun posibleak proposatzea da helburua, horixe baita Beldur Barik Jarrera.

Gaur egun sare sozialetako joerek horretarako aukera paregabea eskaintzen digute eta hori baliatu nahi izan dugu aurten, noski, orain arteko ikus-entzunezko formatuei ateak itxi gabe.

Horiek horrela, kategoriak antolatzeko proposamen berri bat egiten dugu:

Bi adin tarte

- 12-16 URTE ARTEKOAK
- 17-20 URTE ARTEKOAK

Adin tarte bakoitzean bi kategoria

- TALDEKAKO LANAK. Kategoria honetan eskolan, gaztelekuan edo lagunartean taldeka egindako bideoak kontuan hartzen dira. Taldean egindako lanari garrantzia ematen zaio, eta horregatik, sari ekonomikoa handiagoa da. Taldeko prozesua eta elkarrekin egindako hausnarketa ere baloratzen dira.
- BANAKAKO LANAK. Kategoria honetan norberak bakarka egindako bideoak sartzen dira. Norberaren ideiak eta hausnarketa pertsonala kontuan hartuko dira.

SARIAK

Lanik onenak sarien bidez aitortuko dira. Guztira sei sari banatuko dira. Kategoria bakoitzean bi sari esleituko ditu epaimahaiak. Horietaz gain, publikoak gehien bozkatutako lanak ere jasoko du saria eta ikus-entzunezko lanik onenak ere izango du aipamen berezia.



12-16 URTE (2013 eta 2009 urteen artean jaioetakoak)

- TALDEKA 650 euro
- BANAKA 200 euro + liburu sorta*

**50 eurotan baloratutako genero perspektiba lantzeko liburu bilduma, liburu-denda txiki baten eskutik.*

17-20 URTE (2008 eta 2005 urteen artean jaioetakoak)

- TALDEKA 650 euro
- BANAKA 200 euro + liburu sorta*

**50 eurotan baloratutako genero perspektiba lantzeko liburu bilduma, liburu-denda txiki baten eskutik.*

Publikoaren saria

- Bideo guztien artean publikoaren bozka bidez hautatutako bideoak irabaziko du (talde edo banakakoa izan daiteke): 300 euro.

Ikus-entzunezko lan onenaren saria

- Beldur Barik Jarrera adierazteko komunikazio artistikoko baliabide edota kode egokienak erabili dituen lanari emango zaio. 300 euro.

NOLA PARTE HARTU?

12 eta 20 urte arteko gazteek parte hartu dezakete, taldeka zein banaka, eta egin beharreko pausuak hauek dira:



Igo Beldur Barik Jarrera erakusten duen ikus-entzunezko lana Youtube, Facebook, TikTok edo Instagramera (3 minutu baino gutxiago iraun behar du).

Argitalpenak modu publikoan egin beharko dira, beraz parte hartzaileen sareetako profila publikoa izan beharko da (Instagram, Facebook eta TikTok). Horrez gain, gomendagarria da Beldur Barik profila etiketatzea TikTok, Facebook eta Instagram sareetako argitalpenetan.

Youtuben aldiz, deskribapenean bideoaren izena, zein udalerritan eta zein kategorian aurkezten den adierazi behar da.



Beldur Barik web orriko Izen Emate Fitxa bete eta gehitu igo duzun bideoaren esteka.

Hemen aurtengo **OINARRIAK** daude xehetasun gehiago nahi izanez gero.

ETA ZURE HERRIAN, ZER?

Aurtengo erronka Beldur Barik lehiaketako prozesu lokalak sustatzea da eta lan horretan lagungarri izan nahi du gida honek. Izan ere, zure herrian Beldur Barik Jarrera lehiaketa sustatzeko jarraitu ditzakezun pausoak aurkituko dituzu lerro hauetan.

Kartelak jarritz

- > Emakumeen Etxeko atarian
- > Eskoletan
- > Gazteleku edo/eta Gaztetxean
- > Liburutegian
- > Udaletxean
- > Plazetan eta kalean
- > 12 eta 20 urte arteko gazteak biltzen diren edozein espaziotan

* Zure herrira kartel kopiak helarazten saiatuko gara, baina material guztiak **HEMEN** daude eskuragarri.

Inguruan dituzun ikastetxeei beldur barik lehiaketaren berri eman

>> Nola zabaldu ikastetxeetan

- > Ikastetxearako prestatu dugun MAILING-a zabaltzen. **HEMEN** aurkituko duzu eredua. Bertan lehiaketaren berri eta beharrezko materiala zabaltzeaz gain, eskolan indarkeria matxista lantzeko material pedagogikoa aurkituko dute.
- > Zure herri edo eskualdean HEZKIDETZA MAHAIA badago (eskolak batzen dituen organoren bat, Udaletik edota Berritzeguneetatik sustatua), bertan ikasturte hasierako bileran lehiaketaren berri zuzenean eman. Ostean, mailing-a ere egin dezakezu, material guztia eskura uzteko.

Udal, eragile eta elkarteekin partekatuz

>> Nola hedatu Udal mailan


> Udalean Berdintasun, Gazteria edota Hezkuntza arloko teknikariei lehiaketaren berri eman. Horrela informazioa eta zabalpenerako material guztia, Gaztelekuaren, ikastetxeen edota bestelako Udal zerbitzuen esku jarriko duzu.

> Udal mahairik egotekotan (Berdintasun mahaia, Gazteria mahaia,...) bertan parte hartzen duten agenteei ere informazio guztia helarazi.

>> Nola hedatu tokiko feministen eta gazteen eragile edota elkarteekin

> Programa honekin zerikusia izan dezaketen eta publiko xedearekiko hurbiltasuna duten talde/elkarte/plataforma feminista edota gazte taldeengana jo. Bideragarria izanez gero, bilera bat antolatu daiteke eta sustapenerako informazio guztia eskaini. Hauek izan daitezke talde horietako batzuk:

- Talde feministak
- Gazte koadrilak
- Aisialdi taldeak
- M8 edo/eta Az25 plataformak
- Gaztetxea
- Gazte musika taldeak
- ...



Sareetan lehiaketaren informazioa zabalduz

WEBGUNEA

>> Nola zabaldu dezakezu webgunea

> Beldur Barik banner-ra edo logoa zure webguneko edo blogeko ageriko lekuren batean jarri www.beldurbarik.eus helbidera lotuta.

> Zuen "Loturak" edo "Gomendioak" atalean sartu Beldur Barik webgunea.

> Zure webgunean albiste edo post bat idatzi dezakezu urteroko kanpaina aurkezten, zure esku jartzen dugun [prentsa-oharra](#) oinarri hartuta.

Webgunean argitaratzen ditugun materialak zure webgunean edo sare sozialen bitartez partekatu ditzakezu.

INSTAGRAM



[@beldurbarikjarrera](https://www.instagram.com/beldurbarikjarrera)

>> Nola zabaldu programa Instagramen

Bi modutara egin daiteke:

> [@beldurbarikjarrera](https://www.instagram.com/beldurbarikjarrera) kontua jarraituz.

> Gaiarekin lotutako eduki berri bat igotzerakoan, [@beldurbarikjarrera](https://www.instagram.com/beldurbarikjarrera) kontua aipatu eta bestelako hashtag-ekin etiketatu: **#BBJ**, **#BeldurBarik**

>> Nola erabili Instagram zure herriko ekintzak zabaltzeko

- > Argitaratu argazkia edo bideoa **@beldurarikjarrera** kontua aipatuz eta guk elkarbanatu egingo dugu.
- > Erabili ohiko etiketak (**#BBJ**) eta zureak propioak sortu zure ekintzak biltegiratzeko, adibidez:

#BBJZumaia

TIKTOK



@beldurbarik

Nerabeen artean gehien erabiltzen den sare soziala da Tiktok. Aplikazio honek aukera ematen du bideo laburrak partekatzeko, 3-15 segundoko musika-bideo laburrak sortzeko eta 30-60 segundoko bideo luzeagoak sortzeko.

YOUTUBE



www.youtube.com/BeldurBarik

Beldur Barik programak Youtubeko kanal bat du, eta bertara programaren sustapen-bideoak eta Beldur Barik Jarrera partekatzen duten beste bideo interesgarri batzuk igotzen dira.

Youtuben kontu bat baldin baduzu:

- > Klik egin 'atsegin dut' botoian (behatza gora), utzi iruzkin bat, partekatu zure kanalean edo gorde bideoa geroago ikusteko.
- > Gustukoak dituzunak partekatu zure webgune eta sareetan.

ESKUALDEKO KOMUNIKABIDEETAN LANKETA

Zuen esku jartzen dugun prentsa-oharra oinarri hartuta, idatzi eta zabaldu inguruan dituzun komunikabideetan bertako gazteria animatzeko helburuarekin.



ETA ZURE HERRIAN LEHIAKETA PROPIOA SUSTATZEN BADUZU?

Zenbait udalerrik beren lehiaketa propioa antolatzen dute, beren herrian aurkeztutako lanen artean irabazleak aukeratuz. Epaimahaia udalerriko bertako pertsonak osatzen dute. Askok euren topaketa egiten dute sariak banatzeko eta lehiaketari amaiera polita emateko. Jakina, herri horietan egindako ahalegina asko nabaritzen da inguruko gazteen parte-hartzean. Beldur Barik lehiaketak aterki polita eskaintzen du indarkeria matxista lantzeko eta lan hau gazteei eta eskolei hurbiltzeko; animatzen al zara zure udalerrian tokiko prozesuak sustatzera?

Horretarako ondorengo pausuak eman ditzakezu.

HERRIKO SARIAK ETA EPAILEAK HAUTATU

Gogoratu zure herriko gazteak zuen sari eta EAE mailakoetara aurkeztuko liratekeela aldi berean.

Herri mailan zein sari eskaini nahi duzuen erabaki. Dirua izan daiteke edo txango bat... bururatzen zaizuen hori seguru polita izango dela!

Herri mailan epaile lanak nork egingo dituen erabaki. Udal ordezkaria, mugimendu feministako ordezkaria, herriko artista feministaren bat, eskola komunitateko irakasle edo zuzendariak izan daitezke, ikasle talde inplikatuak... zuek erabaki zein den zuen herriko epai mahai onena!

Tokiko lehiaketa egitera animatuz gero, abixatu Idazkaritza Teknikoa (info@beldurbarik.eus) eta zuen eskura jarriko ditu zuen herriko bideoak azaroaren 15ean, aldi berean, zuek zuen epaileei igortzeko.

HERRIKO TOPAKETA ANTOLATU

Azaroren 25aren bueltan, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako egunaren baitan herri topaketa antolatu dezakezu, sariak banatu eta aldi berean, ekitaldiak jendartean izan dezakeen oihartzuna erabili gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko.

Egitaraua prestatzerako orduan herriko dantza, antzerki edo arte eskolekin elkarlanean antolatu dezakezu, indarkeria matxistaren kontrako ekitaldi ederra osatuz eta aldi berean, herrian sinergiak eraginez. Gehiegi konplikatu nahi ez baduzu, azaroaren 25aren bueltan egiten den mobilizazioa baliatu dezakezu sariak banatzeko. Honek gazteen parte hartzea handituko luke.

Noski, herri mailako prozesua sustatu behar baduzu, aurrez azaldutako KOMUNIKAZIO LAN guztiak zentzu honetan bideratu beharko dituzu. Hezkidetza mahaiarekin eta eskualdeko komunikabideekin lanketa berezia eginez, sare sozialetan iragarritz...

KOMUNIKAZIOA ETA AHOLKULARITZA

Gogoratu Beldur Barik lehiaketarekin laguntza behar baduzu, Idazkaritza Teknikoa (Parean Elkarte) laguntzeko prest duzula. Horretarako ondorengo helbidera mezu bat idatzl dezakezu:

info@beldurbarik.eus

edo telefono honetara deitu: **843 740 288**

Programaren aholkularitza teknikoa, zuei, tokiko sustapenei laguntzeko prest egongo gara.

ESKURA DUZUEN MATERIALA

(beldurbarik.eus/komunikazio-materiala)

- KARTELA, FISIKO (iristarazten saiatuko gara) eta DIGITALA (deskargatzeko)
- KARTEL MUTU MOLDAGARRIA (herriko logoa eta deialdiak jartzeko moduan)
- ESKUORRI DIGITALA
- PRENTSA OHAR eredu
- IKASTETXEETAKO MAILING eredu
- OINARRIAK